



Argitaratze data: 2022/09/22

Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuaren hurrengo deialdiari buruzko informazioa

Aurreikusita dago **iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesua laster deitzea** kidego hauetan:

- **Bigarren Hezkuntzako Irakasleak**
- **Hizkuntza Eskola Ofizialak**
- **Musika eta Arte Eszenikoak**
- **Arte Plastiko eta Diseinua**
- **Maisu-Maistrak**
- **Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak, desagertzeaz dagoen kidegoa**

OHARRA: Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoko espezialitateetako plazak ondorengo beste deialdi batean sartuko dira. Deialdi hori, nolana ere, 2022ko abenduaren 31 baino lehen argitaratuko da.

Deialdiaren Agindua EHAAan argitaratu ondoren, Hezkuntza Sailaren webgunean <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-langileak/> kontsultatu ahal izango da deialdi horri buruzko informazio gehiago, gaituko den EPE2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua atalean, hautaketa-prozesu horri buruzko gehien egiten diren galderak, besteak beste. Aldez aurretik, eskainiko diren espezialitateen zerrenda argitara ematen da honen bidez, irakasleen kidegoen arabera sailkatuta, baita hautaketa-prozesuaren ezaugarri nagusiak.



Espezialitate hauek eskainiko dira:

BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOA (txanda irekia)

Frantsesa
Ingelesa
Alemana
Euskara eta literatura
Geografia eta historia
Latina
Musika
Filosofia
Gaztelania eta literatura
Fisika eta kimika
Ekonomia
Matematika
Informatika
Marrazketa
Biologia eta geologia
Hezkuntza-orientabidea
Laneko prestakuntza eta orientabidea
Gorputz-hezkuntza
Teknologia
Enpresen administrazioa
Merkataritza-antolaketa eta -kudeaketa
Elikagaien industriako prozesuak
Nekazaritza-produkzioko prozesuak
Arte grafikoetako prozesuak eta produktuak
Ibilgailuak mantentzeko antolakuntza eta prozesuak
Eraikuntza zibilak eta etxegintza
Fabrikazio mekanikoko antolakuntza eta proiektuak
Energia-sistemen antolamendua eta proiektuak
Sistema elektroteknikoak eta automatikoak
Sistema elektronikoak
Ostalaritza eta turismoa
Komunikazio-prozesuak eta komunikabideak
Zurgintzako eta altzarigintzako prozesuak eta produktuak
Nabigazioa eta itsas instalazioak
Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako produktuak eta prozesuak
Irudi pertsonaleko aholkularitza eta prozesuak
Analisi eta kimika industrialak
Osasun-prozesuak
Prozesu diagnostiko klinikoak eta produktu ortoprotesikoak
Esku-hartze soziokomunitarioa
Akuikultura prozesuak

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO IRAKASLEEN KIDEGOA (txanda irekia)

HEO Ingelesa
HEO Frantsesa
HEO Alemana
HEO Euskara
HEO Errusiera
HEO Gaztelania
HEO Italiara
HEO Portugesa

**MUSIKAKO ETA ARTE ESZENIKOETAKO IRAKASLEEN KIDEGOA (txanda irekia)**

Pianoa
Kontrabaxua
Tronboia
Organoa
Perkusioa
Musikaren historia
Musika-hizkuntza
Klabezina
Konposizioaren oinarriak
Arte dramatikoari aplikatutako kantua
Dramaturgia
Interpretazioa
Dantza klasikoa

ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO IRAKASLEEN KIDEGOA (txanda irekia)

Marrazketa artistikoa eta kolorea
Barrualdeen diseinua
Diseinu grafikoa
Artearen Historia
Materialak eta teknologia: diseinua
Informatika-baliabideak
Argazkigintza

MAISU-MAISTREN KIDEGOA (txanda irekia)

Haur Hezkuntza
Lehen hezkuntza
Ingelesa
Frantsesa
Gorputz-hezkuntza
Musika
Hezkuntza berezia: pedagogia terapeutikoa
Hezkuntza berezia: entzumena eta hizkuntza

LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN DESAGERTZEAR DAGOEN KIDEGOA (txanda irekia)

Administrazio-kudeaketako prozesuak
Merkataritza-prozesuak
Nekazaritza-ekoizpeneko eragiketak eta tresneria
Eraikuntza-proiektuen bulegoa
Ekipo termikoen eta fluidodunen instalazioak eta mantentze-lanak
Instalazio elektroteknikoak
Ekipo elektronikoak
Irudi- eta soinu-teknikak eta -prozedurak
Sistema eta aplikazio informatikoak
Laborategia
Prozesu-eragiketak
Makinak, zerbitzuak eta ekoizpena
Diagnostiko kliniko eta ortoprosesikoko prozedurak
Osasun- eta laguntza-prozedurak
Gizartearentzako zerbitzuak
Hazkuntzako eta laborantzako instalazioak eta ekipoak



Prozesuaren ezaugarriak

1) SALBUESPENEZKO hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskabide bat baino gehiago egin bada irakasle-kidego bereko edo desberdineko espezialitate batean baino gehiagotan sartzeko, izangaiak kidego eta espezialitate bakar batean baino ezingo dira hautatuak izan.

2) Merezimendu-lehiaketa bat izango da, eta parte-hartzaileen honako merezimendu hauek baloratuko dira:

Aldez aurreko irakasle-esperientzia:

- Ikastetxe publikoetan, izangaiak eskatutako kidegoko espezialitatean, kidego bereko beste espezialitate batzuetan edo beste kidego batzuetako beste espezialitate batzuetan aurretik izandako irakaskuntza-esperientzia
- Ikastetxe publikoak ez diren beste ikastetxe batzuetan, izangaiak eskatutako kidegoaren hezkuntza-maila edo -etapa bereko espezialitateetan izandako irakaskuntza-esperientzia.

Prestakuntza akademikoa:

- Espediente akademikoa
- Graduondoak, Doktoretza eta aparteko sariak
- Beste unibertsitate-titulu ofizial batzuk
- Araubide Bereziko Irakaskuntzako eta Berariazko Lanbide Heziketako titulazioak (Musika edo Dantzari buruzkoak, hizkuntzak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren tituluak, Lanbide Heziketa edo Kiroletako goi-mailako teknikariaren tituluak)

Beste merezimendu batzuk:

- Oposizio-fasea gainditu izana 2012az geroztik (barne) deituriko hautaketa-prozeduretan, izangaiak lortu nahi duen kidegoko espezialitate berean (*1).
- Etengabeko prestakuntza, zeinak iraupen ezaugarri batzuk izan behar dituen, eta lortu nahi den espezialitatearekin edo eskola-antolamenduarekin, hezkuntzari aplikatutako teknologia berrieekin, didaktikarekin, psikopedagogiarekin edo hezkuntzaren soziologiarekin lotura izan behar duena.

3) Parte hartzeko eskabideak aurkezteko ezarritako epe berean, merezimenduak egiaztatzen dituzten agirien kopia aurkeztu beharko da. Kontuan hartu, soilik alegatu eta aurkeztu beharko direla Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota ez dauden merezimenduen egiaztagiria.

Erregistro horretan dauden merezimenduak egiaztatu ahal izateko, honako helbide honetan kontsultatu beharko da: <https://hezigunea.euskadi.eus> / (sartu «erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «pasahitza») – Eremu pertsonala – Nire datu laboralak eta honako atal hauetan:



- Zerbitzu-orria (*2)
- Tituluak, gaikuntzak eta ziurtagiriak (atal honetan espediente akademikoaren batez besteko nota (*3) ere agertu ahal izango da).

Ikastaroei dagokienez, helbide honetan bertan kontsultatu dezakezu, leku honetan: Eremu pertsonala – Nire prestakuntza – Nire ikastaro guztiak ikusi (*4)

<https://hezigunea.euskadi.eus> / helbidean sartzeko erabili beharreko pasahitza pertsonak beste prozesu batzuetan parte hartzeagatik daukana izango da (ordezkapenatarako hautagaien zerrendak, etab.). Pasahitza gogoratzen ez baduzu edo galdu baduzu, beste pasahitz bat lortu ahal izango duzu Heziguneko atari horretan, «Pasahitza ahaztu duzu» atala hautatuta.

Oharrak:

(*1) 2012tik deitutako hautaketa-prozeduretan oposizio-fasea gainditzeari buruzko merezimenduari dagokionez, informazio hori Langileen Erregistroan jasota ez badago ere, ez da ziurtagiririk aurkeztu beharko hautaketa-prozedura horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak deitu baditu.

(*2) Zerbitzu-orrian jasota ez dauden zentro pribatuetoako zerbitzuak, dokumentu honen amaieran agertzen den ziurtagiri-ereduan aurkeztu beharko dira.

(*3) Espediente akademikoaren meritu gisako balorazioa deialdi hau arautzen duten oinarri arautzaileetan ezarritakoari egokituko zaio.

(*4) 2021/2022 ikasturtean ikastetxeetan egindako prestakuntza-proiektuen jardueren ziurtagiriak adierazitako helbidean egongo dira eskuragarri urriaren 15etik aurrera.

Ziurtagiria

Aldez aurreko irakasle-esperientzia (I. eranskineko I.3 eta I.4 azpiatalak)

Nik, _____ jaunak/andreak (NAN zk.: _____),
_____ ikastetxeko zuzendaria naizen aldetik

(IFZ: _____; helbidea: _____), hauxe

ZIURTATZEN DUT:

_____ jaunak/andreak (NAN zk.: _____)

ikastetxe honetan egin zuela / egiten duela lan:

Irakaskuntza-maila (haur- hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, lanbide- heziketa...)	Espezialitatea/irakasgaia /modulua (Lanbide Heziketaren kasuan, zehaztu emandako lanbide-moduluak)	Hasiera-eguna	Bukaera-eguna

_____, 2022ko _____ren ____ (a).
Sinadura: Ikastetxeko zuzendaria